

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

## Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko ekainaren 13an egindako tailerraren akta



**Legazpi, 2012ko URREZKO tak 21 saria**

Zorionak eta eskerrik asko posible egin duzuen guztioi!

Legazpik iraunkortasunaren bidean izan duen ibilbideagatik eta bere Agenda 21aren kalitateagatik jaso duen sari hori ospatzeko, ezagutzera emateko, baloratzeko eta herritarrekin partekatzeko .... kalera irten dugu gaur eta kalean egin dugu gaurko Foroaren tailerra.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Halaxe da, **Legazpiko Agenda 21eko Foroa kalera irten da ...**

- URREZKO tak 21 saria partekatzeko, eskertzeko eta ospatzeko.
- Agenda 21eko Foroa erakusteko eta agerian jartzeko.
- Elkarrekin orain arte egin dugun ibilbidearekin eta aurrerantzean egingo dugunarekin horma-irudia osatzeko.
- Hainbat eta hainbat pertsonen lanari, parte hartzeari eta inplikazioari esker, gaur egun gauden lekuraino iritsi garela guztiokin ospatzeko.

Ikus dezagun!

**Legazpi, URREZKO tak 21 saria:** Sari partekatua eta legazpiar askoren lanari esker lortu dena.

Legazpiko Udalak, Durangoko Udalarekin batera, **URREZKO tak 21 saria** jaso zuen joan den ekainaren 4an. Sari hori Udalsarea 21, iraunkortasunerako udalerrien euskal sareak emandakoa da.

- Tak 21 sariiek Euskal Herriko udalerrien Tokiko Agenda 21en kalitatea aitortzen dute.
- 196 udalerririk osatzen dute Udalsarea 21 eta horietatik 47 udalerririk hartu dute parte sariaren lehenengo edizioan.
- Legazpiren kasuan, ondoko hauek dira bere Tokiko Agenda 21aren ezaugarri nagusiak eta saria jasotzea ahalbidetu dutenak: politikoei ere Agenda 21 barneratuta izatea, departamentu teknikoaren siniste sendoa, herritarren parte hartzeko Foroa hileroko biltzea, proiektu globalak adosteko beste agenteekin adostasunak lortzea, Tokiko Agenda 21aren gardentasun publikoa,.... guztiarekin herriko gaiei buruz iraunkortasunaren kultura eta denon artean eraikitzeko prozesu bat sortuz.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Izan ere Legazpik URREZKO tak 21 saria lortu du, pertsona eta erakunde askoren lanari, konpromisoari eta nahi izateari esker: herritarrak, eragileak, arduradun politikoak, udal teknikariak, elkarteak, enpresak, dendak,... azkeneko urteotan, bakoitzak ahal izan duen neurrian, aukerak eta esperientziak jarri dituzten legazpiar asko; guztien lana izan da eta iraunkortasunaren aldeko apustua egin dute.

Beraz, gaur hemen Kepa Urzelai Legazpiko alkateak eta Igor Urrate Agenda 21eko zinegotziak esan duten bezalaxe, **eskerrik asko guztioi!**

### Agenda 21eko Foroa kalera irten da saria ospatzeko eta lanean jarraitzeko...

**“Kalera irtetea”** Agenda 21ek aurtengo 2012rako jarrita zuen asmoa eta erronka zen. Foroak egiten duen lana agerian jarri nahi izan dugu: bilerak, zertan ematen dugun denbora, nola antolatzen garen, esperientziak zer ematen digun,... garrantzitsua da espazioa balioesteko; eta Legazpi hobetzeko elkarrekin lan egiteko prest dauden herritarrak eta elkarteak erakartzeko.

Sariak aukera ezin hobea eman digu Batzar aretotik irten eta kalera jaisteko eta lana nola egiten dugun erakusteko. Eta horrela egin dugu! Nola?

Saria ospatzeko **horma-irudia egin dugu** Foroko kideok. Horixe izan da gure ekarpena.



Zer lortu dugu Legazpiko Tokiko Agenda 21arekin 1998az geroztik?  
Zertarako balio izan digu gure Tokiko Agenda 21ean lan egiteak?



Zer dugu oraindik lortzeke? Zeintzuk dira Legazpiko Tokiko Agenda 21aren erronkak datozen urteetarako?

Kontuan izan behar dugu Legazpiko Tokiko Agenda 21 bide luzea dela eta ibilbide horretan ...

... bide-zati bat egin dugu eta hainbat gauza lortu ditugu...

... baina oraindik badira aurkitu beharreko bidezidorrak eta lortu beharreko erronkak...

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Horma-irudian, eta tailerrean parte hartu dutenen iritziak eta irudipenak batuz, txanpon bereko 2 alderdiak marraztu nahi izan ditugu: lortutakoa, hau da, Agenda 21ean eman diren aurrerapenak; eta oraindik landu gabe dauden gaiak.

**Emaitza?** Irudi koloretsua non bide berde luzea ikus dezakegun –"lorpenak", dagoeneko lortu duguna eta motxilan daramaguna-; baina bidean ere arrasto arrosa dago, lanean jarraitzera animatzen gaituena.



### Zer lortu dugu Legazpiko Tokiko Agenda 21ean, 1998az geroztik?

Zertarako balio izan digu gure Tokiko Agenda 21ean lan egiteak?

Laburtuz, eta parte hartu duten pertsona guztiek eman dituzten erantzunak aztertu ondoren, **lorpen nagusitzat** hartzen ditugu ondoko hauek ...

- **Mugikortasuna:** Mugikortasun-plana, bidegorrien sarearekin bizikletaren erabilera bultzatzea, zenbait kale oinezkoentzat egokitzea...
- **Sentsibilizazioa eta ingurumen-hezkuntza:** Azkeneko urteotan, legazpiarren artean ingurumenarekiko kontzientzia areagotzea lortu dugu.
- **Herritarren parte hartzea,** Agenda 21aren bultzadari, Agenda 21eko Foroaren lanari eta Foroaren iraunkortasunari eta heldutasunari esker...
- **Natura-ondarea zaintzea.**
- **Bidezko merkataritza eta merkataritza berdea,** erosketetarako orgaren erabilera bultzatzeko, poltsen erabilera saihesteko,... eta antzeko ekimenei esker.
- **Eskola-agenda 21,** iraunkortasunaren eremuan ikasleen parte hartzearekin.

Baita bestelako gaietan ere, hara nola, irisgarritasuna, bizi-kalitatea, Udalaren parte hartzea, auzoak zaintzea, ...

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Zehaztuz, ondoko hauek izan dira norbanakoen erantzunak:



### Zer lortu dugu Legazpiko Tokiko Agenda 21ean, 1998az geroztik?

Zertarako balio izan digu gure Tokiko Agenda 21ean lan egiteak?

#### Mugikortasuna

- Herri barruko errepedeak eta inguruak konpontzea, oinezkoen espaloiak zabaltzea.
- Mirandaolarainoko bidegorria –hobetzeko, berriz, Terreriarterako zatia-.
- Bidegorriak.
- Kaleetako oinezkoentzako zati batzuk.
- Mugikortasun-plana.
- Oinezkoak, txirrinduak eta autoak, bakoitza bere lekuan jartzea.
- Laubideko oinezkoen kalea. Hasierako erreparoa gaindituta, asmatu egin da.
- Bidegorria. Gero eta gehiago erabiltzen da.
- Gustura paseatzen da.
- Mugikortasun-gaietako batzuk.
- Mugikortasun-plana bultzatu.
- Oinezkoen eta bizikletan ibiltzea erraztu.
- Norabide bakarreko errepedeak + oinezkoen gunea.
- Bidegorria.
- Trenetan bizikletak erabili ahal izatea.
- Herri barruan lekuetara iristeko aukerak eta bideragarritasuna.

#### Sentsibilizazioa eta ingurumen-hezkuntza

- Gai ekologikoen aldeko sentimendua –paisaia, ibaiak, janaria...-.
- Oro har, garbiketarekiko kontzientziazioa –kaleak, berdeguneak...-.
- Erreka eguna.
- Sentsibilizazio ekologikoa.
- Ekosistemarekiko sentsibilizazioa.
- Plastikoaren aurkako sentsibilitatea.
- Kontzientziak mugitzea alde batera edo bestera.
- Ingurumenaren eta birziklapenaren aldeko kontzientzia handiagoa.
- Florenekin ibaira egindako bisitak. Bertako fauna eta flora erakutsi zigun.
- Erreka eguna.
- Ingurumenaren sentsibilizatorako kanpainak egitea.
- Gure ingurunea zaindu nahia piztu zaigu.
- Ingurumen-aldaketa.
- Iraunkortasunarekiko sentsibilizazioa.
- Ingurumen-adierazleak zehaztea.
- Airearen kalitatearen gaia eta gizartean horrek duen eragina.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Zer lortu dugu Legazpiko Tokiko Agenda 21ean, 1998az geroztik?

Zertarako balio izan digu gure Tokiko Agenda 21ean lan egiteak?

Herritarren parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Foroaren heldutasuna.</li> <li>• Sentsibilitate desberdinak areto berean elkartzea.</li> <li>• Agenda 21eko lantaldea bizirik mantentzea.</li> <li>• Herriaren integrazioa, herritarren parte hartzea.</li> <li>• Filosofia eta ilusioa mantentzea – parte hartzea Agenda 21ean.</li> <li>• Herritarren partaidetza bultzatu da.</li> </ul>
Natura ondarea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Naturaren inbentarioa egitea.</li> <li>• Ingurumenari garrantzia ematea.</li> <li>• Erreka eguna, zuhaitz landaketa... orokorrean ingurumena zaintzeko egindako ekintzak.</li> <li>• Natura garbi mantentzea.</li> <li>• Legazpi ezagutzera ematea.</li> </ul>
Merkataritza berdea eta bidezko merkataritza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dendetan erosketetarako orgak eta poltsak erabiltzea.</li> <li>• Erosketak egitera joaten garenean, "karroa" erabiltzea.</li> <li>• Merkataritza berdeagoa da.</li> <li>• Erosketak, orga eta poltsak berriz hartzea.</li> <li>• Bidezko merkataritza.</li> </ul>
Eskola Agenda 21	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleak herritarrak bezala beraien proposamenak edo eskaerak adierazteko tokia.</li> <li>• Ikasleekin kontatzea eta tartean sartzea.</li> </ul>
Irisgarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irisgarritasuna hobetzea.</li> <li>• Liburutegi ondoko igogailua.</li> <li>• Igogailua.</li> </ul>
Auzoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoak txukuntzeko lanak.</li> <li>• Baserrietan eta inguruetan hobekuntza nabaritu dut.</li> </ul>
Ibaia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ibaia garbitzea.</li> <li>• Ibaia garbitzea.</li> </ul>
Bizi-kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasuna.</li> <li>• Plaza inguruak zenbat irabazi duen!</li> </ul>
Udalak parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala tartean sartzea.</li> </ul>
Elikadura	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elikadura osasuntsuagoa.</li> </ul>

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Zer dugu oraindik lortzeke?

Zeintzuk dira Legazpiko Tokiko Agenda 21aren erronkak datozen urteetarako?

Laburtuz, Agenda 21aren erronka nagusiak ondokoak direla ulertzen dugu...

- **Hondakinen kudeaketa** lantzea, haiek gutxitzea eta birziklatzea hobetzeko –eta emaitzekin-.
- **Sentsibilizazioa eta ingurumen-kontzientzia:** Lanean jarraitu herritarren artean iraunkortasunaren aldeko kontzientzia handiagoa lortzeko.
- **Herritarren parte hartzea eta inplikazioa** sustatzea, herritar gehiagoengana iristeko eta erantzunkidetasuna lortzeko.
- **Mugikortasun-planari** segida ematea.
- **Ingurunea kontrolatzea eta zaintzea.**
- **Ekonomia berdea** sustatzea Legazpin.

Eta bestelakoak: irisgarritasuna, hirigintza, uraren eta energiaren kudeaketa...



Hona hemen zehaztuta, norbanakoen oin-txarteletan jaso dena:

### Zer dugu oraindik lortzeke?

Zeintzuk dira Legazpiko Tokiko Agenda 21aren erronkak datozen urteetarako?

Hondakinen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zaborraren bilketa nola sakondu.</li> <li>• Zabor gutxiago sortzeko neurriak.</li> <li>• Birziklatzeko eta hondakinak tratatzeko konpromisoa.</li> <li>• Herria zatituko ez duen zaborra biltzeko sistema bat aurkitzen saiatzea.</li> <li>• Hondakinen gaia.</li> <li>• Birziklatzea... derrigorrezkoa.</li> <li>• Hondakinak murriztea (zero zabor bidean).</li> <li>• Hondakinen kudeaketa.</li> <li>• Zero Zabor bidean hondakinak murriztea.</li> <li>• Lortu behar dugu gehiago birziklatzea.</li> </ul>
Sentsibilizazioa eta komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egindako hausnarketak, lanak,... hobeto zabalitzea.</li> <li>• Kontzientziazio-lana bukatzea.</li> <li>• Herritarrak kontzientziatzea edo sentsibilizatzea.</li> <li>• Oraindik ingurumenaren aldeko sentsibilizazio handia lortzea falta da.</li> <li>• "Irakasle" onen hitzaldi informatiboak.</li> <li>• Herritarrak hezi egin behar dira auzoetan zaratak, iskanbilak,... saihesteko .</li> </ul>



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Zer dugu oraindik lortzeke?

Zeintzuk dira Legazpiko Tokiko Agenda 21aren erronkak datozen urteetarako?

Inplikazioa eta herritarren parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzea.</li> <li>• Politikariek herritarrak entzun ditzatela.</li> <li>• Herritarren parte hartze handiagoa.</li> <li>• Jendearen parte hartze handiagoa. Aurpegi berriak.</li> <li>• Herritarrengana iritsi behar dugu.</li> </ul>
Mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri barruko garraio publikoa hobetzea.</li> <li>• Bidegorrien sarea.</li> <li>• Autoan ibiltzeko ohitura murriztea.</li> <li>• Bidegorria bultzatzen jarraitzea.</li> <li>• Ibilgailuen zirkulazioa.</li> <li>• Azpiegituren kudeaketa: errepideak, garraioa, mugikortasuna.</li> </ul>
Garbiketa, ingurumen-kontrola eta kutsadura	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontrola eta hobekuntza gure mendietan eta ibaietan.</li> <li>• Kaleetako paretak garbi mantentzea.</li> <li>• Kutsaduraren gaia.</li> <li>• Kutsadura murriztea.</li> </ul>
Ekonomia berdea eta ekoizpen ekologikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanpostu berdeak sortzea bultzatu.</li> <li>• Ekologikoki ekoiztea.</li> <li>• Bertako produktu ekologikoak bultzatu.</li> </ul>
Uraren eta energiaren kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Energia aurreztea.</li> <li>• Energiaren kudeaketa.</li> <li>• Uraren gaia.</li> </ul>
Irisgarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Geltokitik herrira arteko bide-tartea erraztea.</li> </ul>
Hirigintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saihesbidearen bestaldeko etxeak... hasi, amaitu ez... txukundu beharra.</li> </ul>



Bestetik, horma-irudia agerian utzi da kalean Foroaren tailerra egin eta hurrengo egunetan eta, beraz, Agenda 21eko Foroaren lana eta emaitzak ikusgai egon dira nahi izan duenarentzako.

Ohi bezala, lan bikaina taldearena!



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

**Eta bukatzeko topa ekologikoa** egin dugu URREZKO tak 21 saria ospatzeko eta bidean aurrera egin dezagun opa izateko...



Mila esker honaino iristea posible egin duzuen  
guztiori eta **bideak jarrai dezala!!!**

Uda ondorenera arte, gozatu eta ondo bizi! **Eskerrik asko!**